

EAEko Merkataritzaren egoerari buruzko txostena

2023KO 1. HIRUHILEKOA



Aurkibidea


■ Hiruhilekoaren egoera	3
■ Txikizkako merkataritzaren konfiantza-adierazlea	3
■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera	
Merkataritza guztira	4
Merkataritza espezializatua	10
Merkataritza ez-espezializatua	16
■ Txikizkako merkataritzaren aurreikuspenak	
Merkataritza guztira	22
Merkataritza espezializatua	24
Merkataritza ez-espezializatua	26
■ Sektoreen arteko konparazioak	27
■ Sare sozialak: egungo presentzia	28
■ Sare sozialak: etorkizuneko presentzia	30
■ Ondorioak	32

■ Hiruhilekoaren egoera

Euskal AEko Merkataritzaren Koiunturari buruzko Inkestaren datuek adierazten dutenez, 2023ko lehen hiruhilekoan, saltokien % 41,4k salmentak murriztu dituzte 2022ko hiruhileko beraren aldean. Aldiz, inkestatuen % 26,8k urte arteko igoera izan du salmenta-bolumenean.


Jaitsiera hori merkataritza espezializatuaren salmenten atzerakada nabarmenaren ondorioz gertatu da; izan ere, enpresen % 43,3k duela urtebete baino emaitza txarragoak izan dituzte. Aldiz, espezializatu gabeko merkataritzaren % 45,3k salmenten igoera izan du aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Salmenten egoera 2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren konfiantzaren-adierazlea

Txikizkako merkataritzaren konfiantza-indizea positiboan dago lehen aldiz 2021eko hirugarren hiruhilekotik, 2,0 punturekin, eta bederatzi puntu baino gehiago igo da 2022ko laugarren hiruhilekoan erregistratutakoa. Urteko bigarren hiruhilekorako salmenta-aurreikuspen hobek eta stockaren jaitsiera izan dira Indizearen igoeraren arrazoi nagusiak. 2022ko aldi berarekin alderatuta, indizeak ere hobera egin du.



Beren salmenta-maila txartzat jo duten txikizkako saltokiak laugarren hiruhilekoan % 26,3 izatetik % 31,5 izatera igaro dira. Produktuen stocka murriztu egin da, eta salmenta-aurreikuspenek hobera egin dute duela hiru hilabetezko aurreikuspenekin alderatuta. % 27,7k datozen hilabeteetan salmentak handitzea espero du, % 30ek jaitsiera espero du eta gainerako % 42,3k salmentei eustea espero du.

Gipuzkoa da, alde handiarekin, aldi honetan konfiantza-indizerik onena izan duen lurralde historikoa (+15,5), 2023ko bigarren hiruhilekorako salmenta-aurreikuspen positiboengatik. Arabak -1,1 puntuko indizea izan du, eta Bizkaiak -6,5 puntukoa, nahiz eta negatiboa izan 2022ko laugarren hiruhilekoan lortutakoa hobetu.

■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza guztira

1 / Salmenta-bolumena aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

Euskadiko kontsultatutako negozioien % 54,6k salmenta txikiagoak izan zituzten laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Azpisektoreetako batek ere ez zuen saldo positiborik izan hiruhileko arteko salmentetan, eta elikaduran espezializatutako txikizkako merkataritza izan zen portaera txarrena izan zuena, establezimenduen % 67an jaitsi baitziren salmentak.

Testuinguru horretan, guztizkoaren % 14,9k emaitza hobea izan zituen, eta enpresen % 30,5ek adierazi zuen ez zuela aldaketarik izan salmentetan.

Hiru euskal lurraldeen portaera negatiboa izan zen. Gipuzkoak -32,8 puntuko saldo garbia izan zuen, Arabak 43,5 puntukoa eta Bizkaiak 43,4 puntukoa.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza guztira

2 / Salmenta-bolumena iazko hiruhileko berarekin alderatuta

Duela urtebeteko aldi beraren aldean, salmenta txikiagoak izan zituzten txikizkako saltokiak emaitza hobekak lortu zituztenak baino gehiago izan ziren. Oro har, salmenta-bolumena % 41,4 murriztu zen, % 31,8 mantendu zen eta gainerako % 26,8ak negozio-zifra handitu zuen.

Euskal AEko probintzia bakar batek ere ez du urte arteko igoera garbirik izan salmentetan, nahiz eta Gipuzkoa urte arteko igoera lortzetik oso gertu geratu.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza guztira

3 / Salmenta-maila normala

Salmenten bolumena ontzat edo egokitatzat jo zuten EAEko establezimenduen proportzioak txartzat jo zituztenena gainditzen du, nahiz eta azken horiek aurreko kontsultarekin alderatuta duten proportzioa pixka bat handitu. Zehazki, % 31,5ek salmenta-maila txartzat jo zuten, % 43,8k gogobetetzat eta % 24,7k ontzat jo zituzten salmentak.

Kasu honetan, aldeak daude hiru euskal probintzien artean. Gipuzkoako negozioien % 78,7k ontzat edo egokitatzat jo zituzten salmentak; Arabakoak eta Bizkaikoak, berriz, % 70,4 eta % 61,2 izan ziren, hurrenez hurren.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza guztira

4 / Biltegiatzeak

Euskadin, oro har, establezimenduen stocka pixka bat murriztu da, eta % 62,2k uste du biltegiatze-maila egokia dela, aurreko aldiari baino bost puntu gutxiago.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza guztira

5 / Erosketa-prezioak

Establezimenduek hornitzaileen aurrean izan zituzten erosketa-prezioak igo egin ziren berriro.

Saltokien % 73,9k gora egin zuten, eta % 1,8k soilik lortu zuten erosketa-prezio txikiagoa.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza guztira

6 / Salmenta-prezioak

Aldi horretan, hornitzaileentzako erosketa-prezioen igoera partzialki helarazi zaio azken bezeroari, euskal merkataritza-establezimenduen irabazi-marjinari eusten saiatzeko.

% 50,9k prezioak igo egin zirela adierazi zuen bitartean, % 4,0k kontrakoa adierazi zuen.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza espezializatua

1 / Salmenta-bolumena aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

Kontsultatutako Euskadiko negozio espezializatuen % 55,7k salmenta txikiagoak izan zituzten aurreko hiruhilekoan baino. Aitzitik, enpresen % 15,1ek soilik lortu zituzten emaitza hobekak, eta enpresen % 29,2k adierazi zuten salmentei eutsi ziretela.

Azpisektore guztiek saldo negatiboa izan zuten hiruhileko arteko salmentetan, eta elikaduran espezializatutako txikizkako merkataritzaren azpisektoreak izan zuten hiruhilekoen arteko bilakaerarik txarrena, negozioien % 67,0 jaitsi baitziren salmentak.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza espezializatua

2 / Salmenta-bolumena iaizko hiruhileko berarekin alderatuta

Duela urtebeteko aldi beraren aldean, txikizkako saltoki espezializatuek, salmenta txikienak zituztenek, emaitza onenak lortu zituztenek baino gehiago saldu zituzten. Zehazki, salmenta-bolumena % 41,4 murriztu zen, % 31,8 mantendu zen eta gainerako % 26,8ak negozio-zifra handitu zuen.

Azpisektore guztiek saldo garbi negatiboa dute. Oraingoan, Etxeen ekipamenduan espezializatutako azpisektoreak izan du bilakaera txarrena, -31,5eko saldo garbi negatiboa erregistratu baitu.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza espezializatua

3 / Salmenta-maila normala

Salmenten bolumena egokitzat edo ontzat jo zuten EAEko establezimendu espezializatuaren proportzioak txartzat jo zituztenak gainditzen ditu, nahiz eta azken horiek gora egin duten 2022ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Zehazki, % 32,9k salmenta-maila txartzat jo zuten, % 43,5ek gogobetetzat eta % 23,6k ontzat jo zituzten salmentak.

Etxeko ekipamenduan espezializatutako txikizkako merkataritza da saldo garbi positiboa duen bakarra, 0,2 puntukoa.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza espezializatua

4 / Biltegitratzeak

Euskadin, oro har, establezimendu espezializatuaren stockak behera egin zuen urtariletik martxora, % 61ek uste baitu biltegitratze-maila egokia dela.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza espezializatua

5 / Erosketa-prezioak

Establezimendu espezializatuek hornitzaileen aldean izan zituzten erosketa-prezioak nabarmen igo ziren. % 74,5ek esan zuen prezioak igo egin zirela, eta % 1,3k soilik egin zuen behera.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza espezializatua

6 / Salmenta-prezioak

Hornitzaileentzako erosketa-prezioen igoera azken bezeroari helarazi zaio azpisektore guztietan.

Espezializatutako establezimenduetan, oro har, % 50,1ek esan zuen prezioak igo egin zirela, eta % 4,1ek, berriz, kontrakoa. Salmenta-prezioak gehien igo zituen azpisektorea Elikaduran espezializatua izan zen berriro, % 56,3.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza ez-espezializatua

1 / Salmenta-bolumena aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

Espezializatu gabeko establezimenduen heren baten fakturazioak behera egin du 2023ko lehen hiruhilekoan.

Azpisektoreen arabera, jaitsiera handiagoa izan da espezializatu gabeko merkataritzan, gainerako produktuak nagusi izanik. Lurraldeka, jaitsiera Euskadi osoaren antzekoa izan da, baina Gipuzkoa nabarmentzen da pixka bat txikiagoarekin, % 28,6 garbiarekin..

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza ez-espezializatua

2 / Salmenta-bolumena iazko hiruhileko berarekin alderatuta

Lortutako erantzunak 2022ko hiruhileko berdinekoekin alderatuz gero, egoera nabarmen aldatzen da. Izan ere, espezializatu gabeko saltokien % 18k fakturazioa handitu dutela diote, 2022ko aldi berarekin alderatuta.

Gipuzkoa da lurralde baikorrena, non saltokiek fakturazioan hazkunde garbiak izan dituzten bi azpisektoreetan, elikadura nagusi den zerbait biziagoa.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza ez-espezializatua

3 / Salmenta-maila normala

Espezializatu gabeko establezimenduen % 12k adierazi dute pozik daudela 2023ko lehen hiruhilekoan lortutako salmenta-bolumenarekin.

Azpi-sektoreen arabera, asebetetze handiena espezializatu gabeko merkataritzak eragin du, gainerako produktuak nagusi izanik. Lurraldeka, Arabak eta Bizkaiak ere emaitza hobekak lortu dituzte espezializatu gabeko merkataritza mota horretan, eta Gipuzkoa nabarmentzen da elikadura nagusi den merkataritzan dagoen gogobetetze-maila handiagoagatik.

2023ko I. hiruhilekoa




■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza ez-espezializaturia

4 / Biltegiatzeak

2022ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, biltegiatze-maila egokitzat jo duten euskal establezimendu ez-espezializatu enhunekoak bere horretan jarraitzen du, zehazki % 72, nahiz eta murriztuzat jo duten ehunekoak ere handitu egin den; beraz, saldo garbia negatiboa izan da.

Lurralde guztietan saldo garbi negatiboak erregistratu dira; beraz, biltegiatze-maila txikituzat jo duten ehunekoak gehiegizkotuzat jo dutenena baino handiagoa da. Aipatzekoa da Gipuzkoan dagoela inbentario-maila txikiena.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza ez-espezializatua

5 / Erosketa-prezioak

Erosketa-prezioen goranzko joerarekin jarraituz, merkataritza ez-espezializatuan inkestatuen % 63,5ek uste du hornitzaileentzako erosketa-prezioak igo egin direla 2022ko azken hiruhilekoan ordaindu zutenekin alderatuta.

Gipuzkoa izan da gehikuntzarik handienak izan dituen lurraldea, inkestatutako establezimendu ez-espezializatuaren % 81ek hala adierazi baitu, eta izandako hazkundera zertxobait handiagoa izan da azpisektorean, gainerako produktuak nagusi izanik.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren momentuko egoera | Merkataritza ez-espezializatua

6 / Salmenta-prezioak

Badirudi erosketa-prezioen igoera ez zaiola erabat aldatu azken bezeroari, baina bai, gehienbat: establezimenduen % 55 garbiek diote igo egin direla. Azpisektoreen araberrako PSPen igoera bikoitza izan da bi azpisektoreetan.

Arabako lurraldea da erosketa-prezioen igoera gutxien aldatu duena. Izan ere, gehiengo da mantendu dituzten saltokien ehunekoak 2022aren amaieraren aldean.

2023ko I. hiruhilekoa



■ Txikizkako merkataritzaren aurreikuspenak | Merkataritza guztira

1 / Hurrengo hiru hiletarako aurreikuspenak

Oro har, EAEko txikizkako merkataritzaren 2023ko bigarren hiruhilekorako aurreikuspenak egonkortasunaren eta jaitsieraren artean eztabaidatzen dira; establezimenduen % 42k fakturazio-zifrari eutsiko diotela diote, eta % 30ek beherakadak izango direla. Ondorioz, EAEko denden % 81ek hornitzaileei egindako eskaera-mailari eutsiko dio edo murriztu egingo du, nahiz eta horiei eustea espero duen ehuneko handiagoa izan, zehazki, erdia baino gehiago. Aurreikuspenak hobekia dira espezializatu gabeko merkataritzan, % 13,5ek fakturazioa handitzea espero baitu, eta % 16,4k eskaera gehiago egingo ditu. Merkataritza espezializatuaren barruan, etxeko ekipamenduaren sektorea da baikorrena; izan ere, % 11,1 garbiak salmentak handitzea aurreikusten du, eta ehuneko berak espero du eskaera-kopurua handitzea.

Bigarren hiruhilekorako, itxura guztien arabera, EAEko merkataritza-sektoreak salmenta-prezioak igo eta/edo mantenduko ditu; hala adierazi du, gutxienez, inkestauen % 10,6k. Igoera handienak, oro har, elikaduran espero dira, bai elikaduran espezializatutako merkataritzan, bai elikadura nagusi den espezializatu gabekoan.

Inkestan parte hartu duten establezimenduen enpleguari buruzko aurreikuspenak plantillei eusteari buruzkoak dira batez ere, oro har, baina hazkunde garbi positiboak ere erregistratu dira, batez ere elikagaiak nagusi diren espezializatu gabeko merkataritzan. Lurraldeka, Gipuzkoa nabarmentzen da, aurreikuspen baikorragoekin gainerakoekin baino, batez ere espezializatu gabeko merkataritzaren aldetik.




■ Txikizkako merkataritzaren aurreikuspenak | Merkataritza guztira

2 / Hurrengo sei hiletarako aurreikuspenak

Badirudi 2023ko erdialderako itzaropenak bere horretan jarraitzen duela txikizkako merkataritzan oro har, establezimenduen % 60 inguruk egungo egoera koiunturalari eustea espero baitu, baina % 24k uste du hobera egingo duela, eta eragin garbi positiboa sortuko duela merkataritza-establezimenduen % 8,3an. Espezializatu gabeko merkataritza espezializatua baino apur bat baikorragoa da.

Gipuzkoa da txikizkako merkataritza osoan sei hilean behin aurreikuspen onenak dituen lurraldea, eta, ondoren, Araba.

Saltokiaren egoera orokorra



■ Txikizkako merkataritzaren aurreikuspenak | Merkataritza espezializatua

1 / Hurrengo hiru hiletarako aurreikuspenak

Urtearen bigarren herenari begira, euskal merkataritza espezializatuak merkataritzak oro har aurreikusten duenaren antzeko koiuntura aurreikusten du. Saltoki espezializatuena % 4,5ek fakturazioa murriztea espero du, eta % 12,6k eskaera gutxiago egitea; % 9,7k uste du salmenta-prezioak igoko dituela. Inkestatuena % 95ek plantilla mantentzea espero du. Azpisektore guztien artean, elikaduran espezializatutako merkataritza da ezkorrena, salmentetan, eskaera kopuruan eta plantillan jaitsiera garbiak iragarri baititu.

Enpleguari buruzko iritziak egonkortasun orokorrekoak dira azpisektore guztietan, baina, lehen esan dugun bezala, elikaduran espezializatutako merkataritzak ematen ditu ikuspegi negatiboagoak. Lurraldeka, berriz ere Gipuzkoa da lurralde baikorrena, batez ere bestelako kontsumo-ondasunetan espezializatutako merkataritzan.




■ Txikizkako merkataritzaren aurreikuspenak | Merkataritza espezializatua

2 / Hurrengo sei hiletarako aurreikuspenak

Merkataritza orokorrean bezala, merkataritza espezializatuak bere establezimenduen egoera orokorrari eustea aurreikusten du, inkestatuen % 60,2k hala adierazita. Azpisektore guztiek egoera orokorrari eutsiko diotela diote, elikaduran espezializatutakoak izan ezik; izan ere, horietan, % 8,8k uste du establezimenduen egoera orokorrak okerrera egingo duela.

Saltokiaren egoera orokorra




■ Txikizkako merkataritzaren aurreikuspenak | Merkataritza ez-espezializatua


1 / Hurrengo hiru hiletarako aurreikuspenak

Era berean, eta espezializatu gabeko euskal merkataritzaren bigarren hiruhilekorako aurreikuspenari dagokionez, merkataritza espezializatuarena baino hobea da: espezializatu gabeko saltokien % 13,5ek aurreikusten du gehiago fakturatuko duela 2023ko bigarren hiruhilekoan, eta, beraz, % 16,4k igoko duela eskaera kopurua. Bestalde, nahiko adostasuna dago PSPen hazkundeari dagokionez, ia % 18 garbiak (elikadura nagusi) eta % 17 garbiak (gainerako produktuak nagusi) igotzea espero baitute. Enpleguari dagokionez, gainerako produktuak nagusi diren merkataritza ez-espezializatuaren aurreikuspenek plantillak gehiago handitzea espero dute.


Hornitzaileentzako eskaerak




Salmenta-bolumena



Salmenta-prezioak



Langile-kopurua




Txikizkako merkataritzaren aurreikuspenak | Merkataritza ez-espezializatua


2 / Hurrengo sei hiletarako aurreikuspenak

Sei hilabeterako aurreikuspena eustekoa (% 60,2) eta hobetzekoa (% 35,1) da espezializatu gabeko merkataritzan, eta aurreikuspena hobea da espezializatu gabeko merkataritzan, batez ere elikaduran.

Saltokiaren egoera orokorra



Sektoreen arteko konparazioak




* aldeko eta aurkako erantzunei dagozkien portzentajeen arteko saldoa

■ SARE SOZIALAK:

Gaur egungo presentzia: Zein sare sozialetan du presentzia zure establezimenduak gaur egun: (erantzun anizkoitza)


■ Merkataritza mota

Merkataritza-sektoreak sare sozialetan duen partaidetza guztizkoaren % 66,5koa da, merkataritza espezializatuaren kasuan % 69,7koa eta espezializatu gabekoaren kasuan % 42,9koa. Saltokiek Instagram eta Tik Tok aukeratzeko beren produktuen publizitatea egiteko kasuen % 50ean baino gehiagotan.



■ Lurralde historikoa

Lurraldeka, Araban dute saltokiek presentzia handiena sare sozialetan (% 69,7), antzeko indizea dute Gipuzkoan (% 69,5) eta urrunago Bizkaian (% 63,3). Berriz ere, gehien erabiltzen diren sareak Instagram (Gipuzkoa) eta Tik Tok (Araba) dira.




■ SARE SOZIALAK:

Etorkizuneko presentzia: Datozen hilabeteetan, ba al duzu sare sozial berriren batean sartzeko asmorik? Nori/zeri?: (erantzun anizkoitza)


■ Merkataritza mota

Kontsultatutako saltokien % 4,5ek baino ez dute aurreikusten komunikazio-kanal berriak sartzea Sare Sozialen atalean. Portzentajeak gora egiten du espezializatu gabeko merkataritzan, % 6,2. Gainerakoek, % 95,5ek, ez dute sare sozial berririk sartzeko asmorik.



■ Lurralde historikoa

Lurraldeka, Bizkaiko merkataritza da sare sozialen bat zabaltzeko uzkur handiena, % 2,6rekin; aitzitik, Arabako saltokiak % 6,65 horretan saiatuko dira.



■ Ondorioak | Hiruhilekoaren egoera

2023ko lehen hiruhilekoa honako egoera honek markatzen du:

- Aurreko hiruhilekoan baino salmenta txikiagoak aldi horretan. Hala, saltokien % 54,6k adierazi dute salmentak txikiagoak direla aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 14,9k, berriz, gora egin dutela. Espezializatu gabeko merkataritzak baino jaitsiera handiagoa izan du salmentetan.
- Lurralde historikoak kontuan hartuta, egoera horrek eragin negatiboagoa izan du Bizkaian, gero Araban eta azkenik Gipuzkoan. 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, salmentak jaitsi dituzten saltokien ehunekoa % 58,1ekoa da Bizkaian, % 54,6koa Araban eta % 49,4koa Gipuzkoan.
- Merkatariei salmentak aurreko urteko aldi beraren aldean ebaluatzeko eskatzen zaienean, salmentak gehiago jaitsi dira Bizkaian (% 47,7), gero Araban (% 42,1) eta azkenik Gipuzkoan (% 32,1).
- Euskal denden % 43,8k uste du salmenta-bolumena ona izan dela aldi horretan ohikoa izaten denarekin alderatuta.
- Hornikuntzen prezioei dagokienez, nahiz eta denden % 24,3k egonkortasunaz hitz egiten duten, goranzko joera dago, gehiago baitira erosketa-prezioak (% 73,9) igotzen dituztenak, jaisten ikusten dituztenak baino (% 1,8). Gehikuntza hori handiagoa izan da Gipuzkoan (% 78,9), gero Araban (% 78,3) eta azkenik Bizkaian (% 69,5).
- Hornikuntza-prezioen goranzko joerarekin bat etorritz, salmenta-prezioei dagokienez adierazitako joera prezioak igotzekoa da (% 50,9); prezioei eutsi dietenak, berriz, % 45,1era jaitsi dira, eta prezioak murriztu dituztenak % 4,0 dira. Espezializatu gabeko merkataritza espezializatu baino inflazionistagoa da. Era berean, Gipuzkoako merkataritzak gehitu ditu gehien prezioak (% 56,2), ondoren Arabakoak (% 51,4) eta azkenik Bizkaikoak (% 47,3).
- Biltegiei dagokienez, saltokien % 11,4k dio gehiegizko stock-maila duela. Stockekin duten egoera hori dela eta, gehiago dira hornitzaileei egindako eskaerak jaitsiko direla aurreikusten duten saltokiak (% 28,3) eskaera horiek handitzea aurreikusten dutenak baino (% 19,1). Eskaeren murrizketa hori handiagoa da Araban (% 35,5), Bizkaian (% 33,5) eta Gipuzkoan (% 18,1) baino.

■ Ondorioak | Etorkizunerako aukerak

- Horrekin guztiarekin, 2023ko bigarren hiruhilekorako salmenten aurreikuspenek joera negatiboa erakusten dute:
 - ✓ Saltokien % 30,0k hurrengo hiruhilekoan salmentak jaitea espero dut.
 - ✓ % 42,3k egonkortasuna aurreikusten du.
 - ✓ Eta % 27,7k iragarri du salmentak handitzen ari direla.
 - ✓ Kasu horretan, Bizkaiko merkataritza arabakoa (% 33,6) eta Gipuzkoakoa (% 17,6) baino ezkorragoa da (% 37,6).
- Salmenta gutxiago izango diren arren, datorren seiuhilekorako saltokien % 24,1ek uste dute beren saltokien egoera hobetuko dela. Egoera positiboagoa merkataritza ez-espezializatuan (% 35,1) espezializatuan baino (% 22,6).
- Ez da aurreikusten enpleguari buruzko agertoki negatiborik. Saltokien % 94,7k plantilla mantentzea aurreikusten dute.

■ Ondorioak | Sare Sozialak

- Saltoki guztien % 66,5ek diote sare sozialak dituztela. Egoera ohikoagoa da merkataritza espezializatuan (% 69,7) espezializatu gabekoan (% 42,9) baino. Instagram (% 58,8) eta Facebook (% 55,9) dira gehien erabiltzen diren sare sozialak.
- Gainera, saltokien % 4,5ek sare sozial berriren batean sartzeko asmoa dute, besteak beste, Instagram, Tik Tok eta Facebook dira gehien aipatzen direnak.

